




Pasaia, harrera herria: *emakume etorri berriei harrera integrala egiteko mentoretza sozialeko egitasmoa*

ABIAPUNTUA

Pasaiako herrian bizi diren bizilagun guztien **aukera-berdintasuna** eta **elkarbizitza positiboa** bermatzeko urrats garrantzitsuak egin dira. **Ikuspegi komunitario eta barneratzailetik HARRERA** egokia egiteko urratsak:

- Pasaiako Udalaren harrera-protokoloa zehazteko parte hartzeko prozesu zabala (2014 eta 2015).
- Bizilagun berriei (bereziki emakumeei) harrera onerako ekimenak lantzeko prozesua (2017-2018).

Harrera eta integrazio prozesuan lagungarria izan zaien elementu komuna:



Erreferentziazko bihurtu den herritarra ezagutu izana



Pasaiako emakumezko bizilagun berrien harrera- eta inklusio-beharrei erantzuteko mentoretza sozialeko egitasmoa
EGITASMO PILOTUA

ZERTAN DATZA PROIEKTUA?

Akonpainamendu-prozesu
bat da,
non **mentoreak** (aspalditik
udalerrian bizi diren
emakumeak) **mentoratuari**
(Pasaiara bizitzera etorri
berri diren emakumeak)
lagunduko dion komunitatean
txertatzeko prozesua arintzen.

MENTORETZAREN KONTZEPTU GAKOAK

AKONPAINAMENDUA

BORONDATEZKOA

KONFIANTZA

**KONFIDENTZIALTASUN
A**


ERDI EGITURATUA

**ERREFERENTE
POSITIBOA**

ELKARREN ONERAKO

MUGAK

MENTORETZAREN ESPARRUAK



MENTOREAREN EGITEKOAK

- Pertsona mentoratuari **entzutea eta ondoan egotea.**
- **Malgutasuna bai, baina mugak** argi izanda.
- Pertsona mentoratuari **beharrezkoa duen lekuetara laguntzea.**
- **Aisialdiarekin lotutako planak** elkarrekin egitea eta bizitza komunitarioan parte hartzen laguntzea.
- Mentoratuari **laguntzea eta aholkatzea bere inguruko pertsonekin zerikusia duten gaietan**, menpekotasuna duten pertsonak direnean.
- **Eskaini beharreko denbora mugatua** da.

ZER EZ DA MENTOREAREN EGITEKOA

- Modu puntualean norbaiti laguntzea edo aholkatzea.
- Mentoratuaren erabakiak gidatu nahi izatea.
- Pertsona mentoratua etxean hartzea.
 - Ez da dirurik eskainiko, ez utziko.
- Zaintza behar duten umeak edo senideak zaintzea.
 - Ezarritakoa baino denbora edo dedikazio gehiago eskaintzera behartuta sentitzea.
- Pertsona mentoratuaren inguruko pertsonaren bati laguntzea, mentoratua presente ez badago.
 - Mentoreak bere ardura beste pertsona batzuegan delegatzea.
 - Mentoratuaren ordeaz, inguruko beste norbait bihurtzea solaskidea.

GOGORATU!

- Mentoretza-harremanak **ez du ordezkutzen** etorri berria den emakumearen familia, ezta bere harreman-sarea ere.
- Batzuetan, emakume etorri berriaren ahultasun-egoerak eta bizipenek inpotentzia eragin diezazukete. **Ez frustratu.** Egiten ari zarenarekin zure hondar alea jartzen ari zara. Mentoretza-harremana emakume etorri
- berriari bere **bizitzako momentu jakin batean** eskaintzen diozun akonpainamendu-harreman bat da. **Ez duzu inor salbatu behar.**

ONURAK


Zein ONURA ekar diezazuke?

- ▣ Errealitate sozial berriak ezagutzea.
- ▣ Kulturarteko gaitasunak sendotzea eta izan ditzakezun aurreiritzi posibleak zalantzan jartzea.
- ▣ Zure komunikazio-gaitasunak eta pertsonen artekoak hobetzea.
- ▣ Gatazkak kudeatzeko gaitasunak eskuratzea. Joko-eremuan sartu eta konfort egoeratik ateratzea.

Zein ONURA ekarriko dio etorri berria den emakumeari?

- ▣ Inklusio-prozesua hobetu eta arintzea.
- ▣ Udalerrian beraien harreman-sarea zabaltzea.
- ▣ Gaitasun linguistikoak hobetzea.

PROZESUAREN ZIKLOA



FORMAZIOAREN ESKAINTZA

▫ Zer da mentoretza ?

1. saioa

▫ Diskriminazioa eta atzerritartasuna

2. saioa

▫ Gizarte-laguntzak

3. saioa

Lehen 4 saioak otsailean izango dira; 5. saioa egitasmoa garatzen doan bitartean

▫ Emakume etorkinekiko aurreiritziak estereotipoak eta zurrumurruak

4. saioa

▫ Komunikazioa eta pertsonen emozioen kudeaketa

5. saioa

BALDINTZAK ETA KONPROMISOAK

BALDINTZAK

- ▮ 18 urtetik gorako emakumea izatea, Pasaian aspalditik bizi dena.
- ▮ Denbora izatea.
- ▮ Gogoia eta ilusioa izatea.
- ▮ Mentoratuaren gaineko arreta eta entzuteko jarrera izatea.

KONPROMISOAK

- ▮ Formazio-saioetara joatea.
- ▮ Ezarritako denbora-mugak betetzea.
- ▮ Egitasmoaren hasierako eta amaierako saioetara joatea.
- ▮ Bi astean behingo bikoteko segimendu-bileretan parte hartzea.
- ▮ Mentore guztiak elkartuko dituen talde-lanerako espazioan parte hartzea (3 bilera).
- ▮ Zalantzak ditugunean pertsona erreferenteengana jotzea.